

LATXA EUSKALDUNEN SINBOLO (Nikolas Segurola)

Oso aspaldi gertatu omen da eta garai haietan Euskal Herrian era guztietako piztiak bizi ziren: lehoiak, elefantea, tigreak, dinosauroak... bai, dinosauroak ere bai. Eta gainera piztiak euskaraz hitz egiten zuten. Guztiak bai; baita tximuak ere.

Adar Handi Goizuetakoa zen, Mendi Zabalekoa: 150 buru baziren etxe beretik zetozenak eta zahar eta gazte, txiki eta handi... denak artalde berean bizi ziren eta Adar Handi zen denen buru. Inguruko beste artaldeekin ere oso ondo konpontzen ziren, baketsu eta zoriontsu bizi ziren, basoko pizti gaiztoen erasoak izan ez balira...

Egun hartan, Tolosan eguna pasa ondoren, goibel etxeratu zen Adar Handi. Berehala antz eman zioten etxeok eta begira-begira gelditu zitzaizkion. Hala ere, ez zuen behintzat pizti gaiztoen erasorik jasan eta gaitz erdi. Entzun zuen lehoi baten marru izugarria baina oso urruti. – Gabon - esanez sartu zen etxean eta – Gabon – erantzun zion artalde guztiak.

Handik aurrera galdera hemendik eta galdera handik.

- Tolosan zer berri? – Galdetu zion bere alaba Kixkurrek.
- Tolosan, beti bezala, berri asko eta denetarikoak – bota zuen.
- Zer ba?
- Pagoetako artaldean egon naiz eta oso kezkatuta daude eta beraiek bezala beste ingurukoak. Izan ere kezkatzekoa da!
- Zer gertatu da ba? - Saltatu zuen oraingoan Zankok.
- Zurde, Gorbeia lehoi guztien erregea hil omen dute eta bere babesean zituen ardiak jaten zituelako, Aitor, euskaldunen erregeak hil duen susmoak dituzte nonbait. Orain bere biloba Maltzur egin omen dute errege eta mendekua eskatu die Euskal Herriko lehoi guztiei eta mendeku hori ardien gainera eroriko den zarata dago. Harrapatzen dituzten ardi eta bildots denak jateko eskatu omen die.
- Urruti dago Gorbeia? – Galdetu zuen beldurrez Pitxitxik, artaldeko bildots txikienak.

- Guretzat bai baina lehoiak asko korritzen dute. Gainera Gorbeia erregea da Euskal Herriko lehoien erregerik indartsuena eta hark esandakoa bete egingo da. Beraz, kontuz ibili Pitxitxi!
- Ni beti amaren ondoan egongo naiz – esan zuen Pitxitxi. Eta bere ateraldiak askotan barre algaraz hartzen baitzituzten ere, hura ez zen barre egitekoa.
- Beste berri bat ere eman didate. Euskaldunak, beren sinbolo izateko abere mota baten bila omen dabilta eta abereen parlamentuari eskatu digu ospa dezagula parlamentua. Urbiako zelaian ospatuko da, eguzkia goienean dagoen egunean eta abere mota guztiak izango dute eskubidea beraien ordezkaria aurkezteko.
- Zuk joan behar al duzu?
- Zuek horrela nahi baduzue, bai.
- Ez behintzat Maltzurri botorik eman – esan zion Pitxitxi.
- Ez, lasai egon. Ez Maltzurri eta ez beste bere antzeko inori. Ez dut uste beraien bizitza indarkerian oinarritzen dutenak izan behar dutenik euskaldunonen sinbolo.

Eta entzunak entzunda urduri oheratu zen artaldea guztia. Pitxitxi ez zen gau guztian amaren kokospetik mugitu.

Ondorengo egun batean Berastegiko Urton zuten bilera eta handik berri hobeak ekarri zituen Adar Handik. Hauteskundeak igaro arte ez omen zen gehiago pizti mutur zorrotz horien erasorik izango.

- Orain denok onarena egiten – esan zuen Moriko ahari arkazteak-. Gero nahi duten guztia egiteko.

Iritsi zen eguna. Egun luzea, urduritasunez betetako eguna. Asko jokutzen zuten. Irabazlea euskaldunen sinbolo, alajaina! Ohore handia zen hori.

Hura zen ikuskizuna! Urbiako zelaian inork ez zuen holakorik inoiz ikusi: alde guztietatik zetozen abereak. Ez zitzaion inori buruan sartzen Euskal Herrian hainbeste abere mota egon behar zukeenik. Aitor bera ere harrিতta zegoen eta eskerrak oso ondo antolatuta zegoen dena. Adar Handi azken samar iritsi zen eta hura ez zen berak ezagutzen zuen Urbia. Behin baino gehiagotan izanda zegoen bere tartekoak eta lagunak ikustera joanda baina holakorik!

Eta hasi zen halako batean! Aitor hizketan ari zenean ez zen beste txintik entzuten. Aitorrek Euskal Herri guztitik entzuteko moduko danbor bat jo zuen eta aurpegiko gozotasuna galdu gabe baina serio hasi zen.

- Entzun denok. Badakizue zertara etorri zareten. Beraz harira noa. Dena bakean egin beharko dugu, errespetuz. Indarkeriarik ez!

Urbiara iristerakoan zuten sail berean hitz egingo zuten.

Lehenengo iritsi zenak, aurrena eta azkena iritsi zenak, azkena. Nahi zuten denak zuten hitz egiteko eskubidea. Baina hamar minutu gehienez.

Dortoka oraindik ez zela iritsi esan zuten eta ez zekiten hitz egiteko baimenik emango zitzaion edo ez. Barea ere oraindik etorri berria zen.

Lehoiak hitz egin zuen lehenengo eta harro-harro mintzatu zen: indarra behar zuen euskaldunak beste herri denak mendean izateko. Indarra eta grina! Txalo asko jaso zuen. Askok, beldurrez. Aitorri aurpegira begiratzea nahikoa zen ez zitzaiola gustatu antzemateko.

Askok ausardiari buruz hitz egin zuten, beste askok buru azkarri buruz. Hemen zeuden tximua, azeria... Edertasunari buruz ere hitz egin zuten behorrak eta hegazterrenak. Maltzurkeria goraiatu zuen otsoak. – Maltzurra behar da izan bestela ez dago mundua menderatzerik - . Denak mutu. Denak lo baleude bezala. Gero zakurrak hitz egin zuen. Leialtasuna eta zerbitzua azpimarratu zituen eta asko izan ziren txalotu zutenak.

Azkenean iritsi zen Adar Handiren txanda.

Jaiki zen Adar Handi eta denei errespetuz begiratu ondoren hasi zen. Batzuk barre egin zioten. - Zer esan behar ote digu horrek? Gizajo horrek? - zioten. Baina gehienek errespetuz begiratu zioten eta adi. Umil eta errespetu handiz mintzatu zen Adar Handi. Hala ere, indarkeriaren, maltzurkeriaren eta beste fundamentu gabeko ateraldiekiko desadostasuna azaldu zuen garbi. Indarkeria, maltzurkeria, harrokeria, sorginkeria eta beste zenbait irteerekiko desadostasuna azaldu zuen. Jokabide horiek baztertu beharrekoak ziren,

batez ere besteen kaltetan baziren. Indarkeria eta maltzurkeria izan behar zutela euskaldunen oinarri?
Nora iritsi gara?

- Nik ez dut geuk egin duguna azaldu besterik egingo.

Euskal Herrian bene-benetakoak gara eta beti hemen jarraitu dugu. Beti herri honetara kokatuak. Inori ez diogu kalterik egin. Guk eusten diogu garbi herri zoragarri honi. Guk mozten ditugu hemengo sasiak eta guk alaitzen ditugu gure mendiak. Guk ematen diegu euskal gizon eta emakumeei geure umeen okela, geure esnea, geure narrua eta geure hilea, jan eta jantzi dezaten. Gizon-emakumeek egin dizkiguten mesedeen aurrean, guk esker onez erantzun diegu beti eta eman diegunean ez diegu trukean ezer eskatu. Leialak izan gara.

Guk jaso ditugu erasorik handienak, ekaitzak, goseak, gaitzak, geu baina indartsuagoak direnen erasoak. Guk min asko hartu dugu baina ez mendekorik. Ahal den bezala saiatuz bizitzen jarraitu dugu. Guk iraun egin dugu. Traba eta eraso guztien aurrean, arazo guztien aurrean. Bota gaituztenean berriz, jaiki egin gara eta inori kalterik egin gabe denoi mesede eginez bizitzen jarraitzen dugu. Iraun egiten dugu.

Barru barrutik arnasa hartu eta harriduraz beterik begiratzen zioten denen aurrean burua jaso eta bere begiak Aitor zaharrarengana zuzenduz galdera batekin bukatu zuen:

- Ez al da hori euskal gizon-emakumeek beti egin duzuen?

Ai zer txalo zaparrada! Aitorrek berak ere ezin izan zien bere besoei gelditi eutsi.

Aitorrek azaldu zuen bere erabakia:

- Ardi latxak ordezkaturiko gaitu... Zakurra izan da bigarrena bere leialtasuna dela eta; eta ehiza-zakurra izan ez balitz, ardia gehiago estutuko zuen.

Alde handiz irabazi zuen Adar Handik. Hauteskundeak eta beste mota gehienak zoriondu zuten bihotzez, nahiz eta bakarren batzuk gorrotoz eta maltzurkeriaz begiratu. Adar Handi pozik bihurtu zen Goizuetako

bere artaldera. Etxekoek ere pozik zoriondu zuten eta Pitxitxik – Gora Adar Handi eta gure ardi latxa! – deiar egin zuenean, txalo zaparrada handia jo zioten.

Urteak joan eta urteak etorri gertakizun hau ahaztu egin zen gure herrian; baina oraindik orain gure gazte saiatu batzuk euskal kondaira ondo aztertuz jakin dute orduan gertatutakoaren berri.. Eta gaur euskaldun askok daramakigu gure ardi latxaren pegatina gure beribiletan. Eta geroz eta gehiago zabalduko da.

Ez al zaigu berriz ahaztuko!